



Lehiaketaren oinarriak

Parte-hartzeko baldintzak

- 16-30 urte bitarteko pertsona gaztea izatea
- Mezuak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita (eta, nola ez, **ligoteo sanoaren** ikuspegian oinarritzea!)

Zer aurkeztu

- Mezuei dagokionez:
 - Ligoteorako esaldi motzak, argiak eta giro ona sustatzen dutenak
 - Elkarrekikotasunean eta errespetuan oinarritutakoak
- Lehiakideari buruz:
 - Helbide elektronikoa, telefono zenbaki bat eta izen-abizenak helarazi beharko dira EGKra

Nola aurkeztu

- Sare sozialen bitartez parte hartuko da:
 - Facebook bitartez:
 - 1. pausua: #EGKBeldurBarik traolarekin horretarako egokitua dagoen irudian zure mezua idatzi.
 - 2. pausua: Parteka ezazu lehiaketaren argitalpena era *publikoan* zure profilean
 - 3. pausua: ez ahaztu mezu pribatuz zure kontakturako datuak helarazteaz
 - Twitter bidez:
 - 1. pausua: Lehiaketaren argitalpena aipatuz, #EGKBeldurBarik traolarekin zure txioa idatz ezazu.
 - 2. Pausua: ez ahaztu mezu pribatuz zure kontakturako datuak helarazteaz

Epeak eta irizpideak

- Esaldiak aurkezteko epea **uztailaren 5etik irailaren 19ra izango da**
- **Irailaren 20an** epaimahaiak mezu guztiak baloratu eta hiru hoberenak hautatuko ditu ondoko hiru irizpideen arabera:
 - Elkarrekikotasuna eta errespetua oinarri izatea
 - Originaltasuna mezuaren eraikuntzan
 - Betiko leloak ekiditea edota hauek berrasmatzea BeldurBarik jarraitik



- **SARIAK**

- **Finalista** diren hiru pertsona hauek beraien esaldiak biniloan inprimatuta jasoko dute, nahi duten beraien edozein txoko edo gune mezuaz dekoratzeko
- Bestalde, lehiaketan sartzen diren mezu guztiak esaldi eredugarri bilakatuko dira, 2017ko udaran Beldur Barik Guneak osatzeko mezuetan bilakatuko baitira bai eranskailu eta bai biniloetan txertatuz.

- **Legezko alderdiak**

- Datu pertsonalak luzatuta parte hartzerakoan lehiaketaren **oinarriak irakurri eta ulertzen direla ulertzen da**. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztien **onarpena** adierazten du.
- Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Lege Organikoaren arabera, parte-hartzaileek izen-emate formularioa bidaltzerakoan Gazteriaren Kontseiluari emandako datu pertsonalak lehiaketarako beharrezkoak diren izapide eta gestioetan kudeatzeko baimena ematen diete.
- Lehiaketan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diete Antolatzaileei materiala, doan eta egoki edozein euskarritan **hedatzeko, banatzeko, erakusteko, publikoki komunikatzeko** eta zabaltzeko.
- Euskadiko Gazteriaren kontseiluak lehiaketa honetako oinarriak edozein momentutan **interpretatzeko edo aldatzeko** eskubidea du, baita saria eman gabe uzteko eta lehiaketa bera bertan behera uzteko ere, beti ere tartean neurri hori bidezkotzen duen arrazoiren bat bada. Edozein kasutan, EGK-k oinarri hauetan eman daitekeen edozein aldaketa, eta bere kasuan, lehiaketa osoaren baliogabetzea bide honen bidez komunikatzeko konpromisoa du parte-hartzaile guztiek informazio hori eskura izan dezaten.